


 <p>HERRI AMETSA</p> <p>Eskola Jasangarria Ziurtagiria</p>  <p>2021-2022 -IKASTURTEA</p>	<h2>Emozioen Erronka</h2>	<p>Herri Ametsa Ikastola</p> <p>Guardaplata 28, 20016 Donostia</p> <p>Tfn-943 39 35 20 / 39 24 21</p> <p>Fax-943 40 40 90</p> <p>herriam@ikastola.net</p> <p>www.herriametsa.com</p>  
---	---------------------------	--

Donostian, 2021ko azaroaren 8a

Ikastolakide agurgarria:

Datorren azaroaren 27an, IKASTOLAK HERRIARI jaialdia ospatuko dugu, Bilboko Euskalduna Jauregian. Euskararen eta Euskal Kulturaren bost plaza handi dira ikastolen jaiak. Euskal musikari, kantari, dantzari eta ikuskizunetako hamaika artistaren adierazpenaren erakusleho erraldoiak. Aurten ezin izan ditugu ohikoak diren jai handiak ospatu. Baina gure konpromisoa berretsi nahian, Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oinez jaien izenean, eta denen artean, itxiera orokor bat eman nahi diogu pandemiaren bigarren urte honi. Horretara, ikuskizun bikain bat antolatu dugu Bilboko Euskalduna Jauregian. IKASTOLAK HERRIARI. Beronen bitartez, urtero gure jaietan parte hartzen duten artistei eta jaietara etortzen diren herritar guztiei ere gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu.

Hitzordua jarrita dago, eta orain bertaratzea falta zaigu. Euskalduna Jauregia betetzea da dugun erronka, irudi indartsu bat ematea jaialdiari, bai egunean bertan, eta baita ETBk emango duen egunean ere. Sarrerak [Euskalduna Jauregiaren webgunetik](#) eskuratu daitezke soilik.

Besterik gabe, azaroaren 27an Euskalduna Jauregian elkar ikusiko dugulakoan, mila esker eta laster arte.

IKASTOLAK HERRIARI JAIALDIA



**EUSKALDUNA
JAUREGIAN
AZAROAK 27
20:00ETAN**

AURKEZLEAK: MIKEL PAGADI ETA
ZUHAITZ GURRUTXAGA
ANJE DUHALDE ETA PAZ DE ZIGANDA
IKASTOLAKO ABESBATZA
JULEN ALONSO
AMAK
EÑAUT ELORRIETA

